

DK202613 DEKRETUA
DOBERA EUSKARA ELKARTEARI DIRULAGUNTZA ONARTZEA

Gaurko datarekin Auzo alkateak honako Dekretu hau eman du:

DEKRETUA: Ereñotzun, 2026eko apirilaren 22an

Dobera Euskara Elkartearen zuzen zuzeneko helburua da, Urumeako Kronikaren bitartez herriko eta bailarako herritar guztiei informazio zerbitzua eskaintzea. Herrian eta bailaran bertan gertatzen dena jakiteko, eta alderantziz, herritarrek informazioa eman nahi badute, plataforma bat eskaintzea da helburu nagusia.

Ereñotzuko Toki Entitate Txikiaren xedea, besteen artean, jardun hauek sustatzea ere bada. Interes orokorrekoa da elkarteari diru-laguntza ematea. Elkartea, irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta xede hori egiten diharduen elkarre bakarria da.

2026eko Ereñotzuko Toki Entitate Txikiko aurrekontuetan Dobera Euskara Elkartearen aldeko diru-laguntza izenduna jasotzen da.

Diru-laguntzen 2026-2028 Plan Estrategikoan jasota dago.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak 16. artikuluan lankidetzak hitzarmenak formalizatzeko irizpideak ezartzen ditu.

Eman zaizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Ereñotzuko Toki Entitate Txikia eta Dobera Euskara Elkartearen arteko lankidetzak hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- 3.000 euroko diru-laguntza onartzea, hitzarmenaren laugarren klausulan xedatutakoa betez, partida honen kargura: Dirulaguntza zuzenak 01.481.01.334.00.2026 AD-64/2026.

Hirugarrena.- Ordainketa, hitzarmenaren laugarren klausulan jasota bezala egitea: diru-laguntzaren %60 (1.800 €) aurreratuko da erabaki honekin batera, eta gainontzeko %40 (1.200 €) justifikazioa aurkeztean.



Olatz Juantorena Aizpurua auzo alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, Aitor Iztueta Garaikoetxea behin behineko udal idazkaria naizen honek ziurtatu dut.

Eta horren berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako, eta aldi berean jakinarazten dizu(e)gu administrazio-bidea amaitzen duen berriazko egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu(e)la Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko Auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8, 46 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Urriaren 1eko 39/2015 Legeko 114 c) artikulorekin bat etorriz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeke errekurtsoa aurkez dezakezu(e) jakinarazitako berriazko ebazpenaren kontra, hura eman zuen organoaren aurrean, jakinarazpen hori jaso eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Hori guztia egin daiteke aurretik adierazitako Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta norberaren eskubideak babesteko egoki irizitako egintza edo errekurtsoak aurkeztearen kalterik gabe.

Auzo Alkatea

Hernaniko behin behineko udal idazkaria